

BEGOÑA HERNÁNDEZ

Begoña Hernández abokatu eta artistak *Desadostasunak. Feminismoaren mutazioak* mintegiaren barruan bere hitzaldian artistak, irudi-sortzaileak, lan-zuzenbidearen oinarriak ezagutzeko beharra defendatu zuen, horrela baldintza hobekak eskatu eta euren eskubideak erabili ahal izateko.

Begoña Hernándezek hitzaldiaren hasieran gogorarazi zuen artistaz hitz egiten denean berari dagozkion legeetan, adibidez *Artistaren Erregimen Berezia*, lege horiek ez dituztela inola ere aipatzen artista bisualak, baizik eta toreatzaile eta aktoreak. "Lan-zuzenbidearen munduan irudien sortzailea ez da artistatzat jotzen, legezko-testuak ez dituzte horiek aipatzen. Artista ikuskizun publikoa eskaintzen duena da", baieztatu zuen.



Artisten artean joera nagusia hitzarmenik ez egotea da, ezta langilearen kontzientzia ere, ez dago langileak babesten dituzten eskubideak erabiltzeko joerarik. Ez da sektorerik existitzen eta bizi den egoera oso ezegonkorra da. Begoña Hernándezek adibide gisa garbiketaren sektorea aipatu zuen, "Duela 20 urte pentsaezina zen garbiketaren sektoreak hitzarmen kolektibo bat izan zezakeela, eta orain beste sektore askok baina baldintza hobekak dituzte. Sektorea antolatu egin zen eta aurrera egin ahal izan zuten. Guk duela 150 urteko baldintza beretan jarraitzen dugu, bizi dugun egoera ez da bidezkoa. Gauza interesgarriak sortzeko lan-baldintza egokiak izatea beharrezkoa da". Beharrezkoa da artistek gai horretan esku hartzea eta euren jarduera nola arautu daitekeen proposatzea. Proposamen horiek era kolektiboan adostu behar lirateke, izan ere lan-baldintzak banaka negoziatzea pentsaezina da. Begoña Hernándezek azaldu zuen lan-zuzenbidea bi alderdi ezberdinen artean ezartzen dela eta apelaezinak diren eskubide batzuetan oinarritzen dela. Eskubide horiek derrigorrez bete behar diren minimoak adierazten dituzte; sortzaile guztiak euren jarduera legezko tarte horietan arautzen hasiko balira, hori oso pausu garrantzitsua izango litzateke guztiok ordezkaturiko gaituen sektore bat sortzeko. Hori baita arazoaren funtsezko puntuetako bat, artearen lan-sektorea ez dela existitzen.

Norberaren edo besteren konturako langilea

Oso gutxi dira bere kontura lan egiten duten artistak, eta bide horri ekiten diotenek, askotan, egoera ezegonkorretan bizirauten dute. Gehiengoak beste batentzat egiten du lan eta sortzaileen eta enpresarien arteko harremanak arautuko dituen hitzarmen bat ez egoteak askotan artista berarentzat erabat kaltegarriak diren baldintzak adostera behartzen dute. Artearen inguruko enpresak egungo egoera islatzen ez duten antzinako hitzarmenetan babesten dira. Ez dira hainbat eguneroko egoera begiesten, esaterako, amatasuna, edoskitzea, gai toxikoak erabiltzetik eratorritako arazoak... Ez dago inolako arautze espezifikorik esparru artistikoan egunerokoak diren egoera horietarako.

Emakumeen egoera, gainontzeko sektore guztietan bezala, gizonena baino askoz okerragoa da. Arazorik handiena baldintza onetan laneratzea da. Enpresaria denez kontratatzen duena, haurdunaldia, edoskitzea bezalako egoerek eta oraindik indarrean dauden bestelako aurreiritziek laneratze arrunta eragozten dute. Gainera, emakumeak babesten dituzten eskubideak ez ezagutzeak arazoa larriagotzen du.



Begoña Hernándezek azpimarratu zuen garrantzitsua dela enpresa batekin itun bat egiten duen artistak langileen estatutua, hitzarmena, kontratua eskatzea eta bere lan-jardueraren baldintzei eta babesten duten legeei dagokienean jakinaren gainean egotea. "Langileen eskubideak ez ezagutzea beti kontratatzailearen medeserako da", baieztatu zuen.

Hitzaldian zehar Begoña Hernándezek sorkuntza babesten duten lege batzuk azaldu zituen, esaterako autore-eskubideen eskualdaketa, eskubide morala eta ustiapen-eskubideak. Gainera, *Artista Bisualen Elkartearen Batasunaren* bi proposamen erakutsi zituen, artistaren eta galeriaren arteko eta artistaren eta erakundearen arteko harremana arautzen saiatzen direnak. "Harreman horien arazo handiena da artearen mundutik kanpoko pertsonen, bertan dirua soilik ikusten dutenek, gure obra eurek nahi duten bezala erabili ahal izatea. Horregatik, gauzek arautzea behar dute. Gai horiek hausnarketa sakona behar dute eta kontu handiz ibili behar dugu", Begoña Hernándezen arabera.

Azkenik, Begoña Hernándezek *Kataluniako Artista Bisualen Elkarte*a eta horren web orria aipatu zituen hemen kopiatu litekeen ekimen interesgarriak direlakoan. "www.aavc.net erreferentzi puntua bilakatu da legezkoa edo beste edozein motako informazioa behar duen sortzaile ororentzat. Material eta proposamen zehatzak sortzen dituzte eta talde politikoekin harremana dute. Uste dut eduki behar genukeen zerbitzu bat dela", ondorioztatu zuen.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago.

Hemengo testuak nahiz itzulpenak kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.

Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:

- [gaztekeraz](#)
- [ingelesez](#)